

KONTRALDEA

ANE ZABALA

SABIN BIKANDI

DANTZARI ETA MUSIKARIA

“Munduko dantzak egiten ditugu, Euskal Herria munduan dagoelako”

Aiko taldeko partaidea, aspaldi dabil erromeriak antolatzen, gure ohitura zaharrak berri bihurtuz. “Dantzatzuz, ikasi eta ondo pasatu” da bere lema. Soka dantzan eta kalejiran ibili gara Bilbotik, txistulariaren menpe



SABIN Bikandik txistua eta danbolina ditu lagun, nahiz eta *ofizio txarra* hartu zuen, dantza maite duelako. Bere etxean beti izan da *Sabintxu danborrerue*, eta erritmoa galdu barik erantzun ditu galderak, danborrak markatu ditu eta dantzarako *tempoak*. Txistularia gailendu da, baina danbolinteroa-*ren titulua* ere aldarrikatzen du, izen horren atzean “zerbait gehiago” dago eta.

Zein da leku egokiagoa erromeriarako, Guggenheim pareta edo Galdakaoko plaza?

Edozein leku izan daiteke ona dantzan egiteko, gogoia badago eta laguna izanez gero. Parrandarik onenak eta sanoenak gutxien pentsatzen dugun tokian izaten dira.

Erromeriarako osagaiak: musika, dantzariak,... eta zer gehiago?

Horixe ba: dantzan egiteko laguna edukitzea eta zarata, musika apur bat edo norberak egitea kantuan. Beste era batera esanda: ondo pasatzeko eta elkarrekin egoteko gogoia.

Dantzarako bi pauso baino ez dira behar.

Pauso bi ez dakit baina hanka bi bai. Eta berriro diot: mugitzeko gogoia, ez da beste munduko ezer behar. *Ai, eske nik ez dakit* hori ez zen ezta aipatzen ere lehen, mundu guztiak baitzekien kantatzen eta dantzatzen. Eguneroko bizimoduaren parte ziren eta gaur dirudi kantuan egiteko kantaria izan behar zarela eta dantza egiteko, dantzari profesionala.

Zer nahiago, txistua jo edo adarra jo?

Gauza biak batera ere egiten dugu, txistua jo-



“Parrandarik onenak gutxien pentsatzen dugun tokian izaten dira”.

JUAN LAZKANO



Gure jota eta fandangoak flamenkoaren ‘lehengusuak’ dira. Askotan Lola Flores etortzen zait burura”

tzen gaudela adarra jotzen dugu, eta hori polita izaten da.

Dantzarako ezinbestekoa bikotea orduan...

Dantza taldean egin daiteke, bakarrik ere egin daiteke, baina gure erromerietan eta gure gurasoen belaunaldietan dantza batez ere bikote dantza izan da. Neskatan joateko edo mutikotan joateko. *Kortejorako...* uf! Nola esaten da *cortejo* batuaz? Euskaltzaindia krisian dagoenez, ba esan dezagun *kortejo*, kar, kar... Bai, dantza ligatzeko erabili izan da.

Aiko, Japoniako kantari famatuaren izena da, merkatu internazionalari begira ote?

Horretaz ohartu ginen interneteko domeinua hartzera joan ginenean, aukera guztiak hartuta zeuden eta horregatik Aiko taldea jarri genuen.

Tira, laster Aiko.eus?

Bai, horretan gabilta. Gurea, *aiko*, gure artean hitanoz erabiltzen den interjekzioa da, *aizu* esateko. Ez dugu Japoniarekin ezer, gure hizkuntza *vascuencea* da!

Txistuak musika ‘serio’ jotzeko balio du?

Tamalez aspaldian serioegi jotzen da. Inguru batzuetan faltan botatzen dut beste erregistro batzuetan ibiltzea. Sarritan, ofizioagatik, txistulariak udaletxean egoten gara, protokoloa dela bide, eta beste erregistro asko daukagu eta eduki ditzakegu. Batzuetan horretan ibiltzen naiz ni, inprobisazio librea.

Pop kultura herritarren kultura da, zuena ere ‘pop’ dela esan genezake?

Gu behintzat pop bagara, herriaren parte garelako. Baina etiketetan galdu egiten gara. Guk munduko dantzak egiten ditugu, Euskal Herria munduan dagoelako, beraz, munduko dantzak dira. Biodantza ere egiten dugu, bizirik gaude-lako; dantza garaikidea ere egiten dugu, ni behintzat *gaurkoa* naizelako... Etiketen kontua labainkorra da.

Gauza berritzaileak ere egiten dituzue, esaterako, jota gitarra elektrikoarekin.

Gure istorioa *zaharrak berri* da. Ahaztuta egon diren gauzak gaurko egunera ekartzen ditugu, *dantzakeratik* hasita. Gitarra ere egon da plazetan, nik Galdakaon ere ezagutu ditut hiru gitarra jole euskaldun.

Laster, flamenkoan.

Ijitoen dantzatzeke moduak badauka zer ikusia gure zaharrek dantza egiteko zuten erarekin. Gure errepertorioko jota eta fandangoak flamenkoaren *lehengusuak* dira. Askotan Lola Flores etortzen zait burura, berak astintzen zuen moduan astindu behar baitira oinak. Lur gainean eta ez hegaz egin gurean.

Aitortu: zenbat aldiz zapaldu duzu bikotea dantzan?

Askotan ez dut uste. Trukua hankak narrasean eramatean datza: talka egin askotan baina zapaldu gutxitan.

Nola dantzatzen da jota gitarra elektrikoarekin? Kontu handiarekin. Dantza, berdin-berdin.

artez
euskara zerbitzua

itzulpenak • hizkuntza aholkularitza • papergintza



www.artez.net
posta@artez.net
944 480 000